

Meategiko lanak aurrera



Aizpeko meategiko berreskuratze lanek aurrera jarraitzen dute. Madrilgo Sustapen ministerioaren laguntzarekin egiten ari diren zahar-berritze lanen barruan, aireko tranbiaren hasiera ere jarri dute. Aspaldian Aizpea aldera inguratu ez denak aldea nabarituko du.



San Joan bezpera

Ohitura zaharrari jarraituz, San Joan bezpera herri-giro ezin hobean ospatu zen. Dantzek, abestiek eta afari-merienda ederrak suaren ingurua alaitu zuten. Aurten San Joan sutan, goi-tentsioko linea irudikatzen zuen postea ere erre zen.

“Gu itsasoa: munduaren atari”



“Gu itsasoa: munduaren atari” izeneko erakusketa ikusgai dago kultur etxean, irailaren amaiera arte. Albaola elkarteak, Zerain Paisaia kulturalak eta Igartubeiti museoak antolatutako erakusketa honek, itsasoak euskaldunon historian izan duen funtzioa eta garrantzia erakusten ditu. Ekainaren 8an inauguratu zen herritarrentzat.

Liztormendi elkarteak 50 urte

Aurten dira 50 urte, hainbat herritar elkartu eta Liztormendi elkarte sortu zutela. Ordutik hona, mende erdiz, soziedade herriaren erdi-erdian izan da, garaian garaiko behar eta eginkizunetara egokituz, hasi jan-edanetik eta festa antolaketa arte. Mende erdi hau ospatzeko, Liztormendik sozioentzat jaia antolatu du uztailaren 14rako. Horrez gain, irailaren 29an, kultur etxearen 25. urteurren ospakizunekin batera herritar guztientzat jai handi bat egingo da.

Mutiloara jaitsiera eta aldarrikapena

Urteroko moduan, aurten ere Mutiloko sagardo probaketara jaitsiera egingo da Zeraindik. Ekainaren 29an, San Pedro egunean, arratseko 7:15en plazan elkartuta egingo da jaitsiera, trikitilari eta txistularien laguntzaz. Aurten gainera, festa giroan sagardo ederra edateaz gain, aldarrikapenerako aukera ere izango da. Iluntzeko 7:45ean, Mutiloko frontoi aurrean elkarretaratzea egingo da goi tentsioko linearen kontra.

Ikasturtea amaitu ostean, uztailean denbora librea

Ekaineko lehen asteburuan, kurtso amaierako asteburu pasa egin dugu; aurten Gipuzkoako kostaldean ibili gera: larunbat goizean Zeraindik irten eta Zestoako Ekain berri ikusten izan ginen, ondoren Zumaiako Flysh-ak ikusi genituen eta gaua Orioko albergean pasa genuen. Igandean berriz, Larraula joan ginen Gipuzkoako Eskola Txikien festara. Bertan Pirritx eta Porrotxekin abestu eta dantza egin, eskulanetan parte hartu, puzgarritan ibili... Hurrengo urtean, Gipuzkoako festa goierrin izango dugu, Olaberrin hain zuzen.

Kurtso denboraldia bukatuta, orain udara datorkigu eta urtero bezala, ekaineko azken astean hasi eta uztail osoan zehar, goizeko 11eta-



tik 13etara hurrek, gazteekin jolasean, eskulanetan, dantzan etab. ibiltzeko aukera izango dute.

Denbora librearen aurretik, aur-

ten kurtsoan zehar izan dugun zaintza zerbitzua ere izango dugu goizeko 8.30etatik 11etara. Ondo pasa uda!!!

Basarte Guraso Elkarte

Goierriko produktuen kluba



Goierriko produktu gastronomikoen ekoizleek eta banatzaileek bat egin dute beren produktuak sustatzeko asmotan, zerbitzu hobea emateko. Goierriko produktuen kluba osatu dute eta bertan partaide dira Zeraingo zerbitzuak: sagardotegiak, gaztandegiak, nekazalturismoak, jatetxeak eta denda. Aurkezpena Ordizian egin zen joan den ekainaren 21ean.

Luis Aizpeolea nagusi Seguran eta Olaberrin

Joko-bolada onean dabil Luis. Maiatzaren amaieran Zerainen Gipuzkoako txapelketa izan ostean, San Joanetako bi tirada irabazi ditu: Segurakoa eta Olaberrikoa. Zorionak eta segi horrela!

Oihane bertsolari-txapelketa taldeka

Telleriko Oihane Lazkanoiturburuk Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du taldeka (14 urtez azpikoetan taldeka jokatzen da txapelketa hau). Zorionak Oihane eta segi bide horretan!

Komisioen herri-bilera ekainaren 16an

Ekainaren 16an, herrian sortutako 15 komisioek egindako lana ezagutzeko, baloratzeko eta aurrera begirakoak lantzeko herri bilera egin zen udal-txean. Herri batzarrak erabaki zuen komisioekin aurrera jarraitzea, baina 15 lan-batzorde horiek gutxiagora murriztea, lanerako egokiagoak izan daitezten.

PPko hautagai denek ofizialki uko egin dute

Azken Udal hauteskundeetan PPko boto batekin egondako gorabeheren ondoren, PPko hautagai denek ofizialki uko egin zioten hautagaitzari. Orain Hauteskunde Batzorde Orokorrek bere erabakia kaleratu du eta Zeraingo Udalak ofizialki 4 zinegotzirekin jarraituko du.

Lapurreta Larraon-doko zerrategian

Ekainaren hasieran, lapurreta egin zuten Larraondoko zerrategian. Erakusgai zeuden hainbat pieza orijinal eraman zituzten: dinamo zaharra, ingudea, eta burdinezko beste hainbat lanabes.

Likea

L Telefono-deia. Xanti. Berehala eman dit berria. "Hil honetakoa ere aukeratuazegok: ibili-ibili egin, eta azkenean likea aukeratu ditek". Eta hori zer dek, Xanti? Berak zapla erantzun: gure artean, edade batetik gorakook, *pegajoso* esateko erabiltzen diagu hitz hori. Horrela esaten diagu herrian: "bai pertsona *likea*". Komentatu diot hitza emazteari, eta bat-batean erantzun dit: "Azpeitian ere hala da: "*like-like* egin da nago" esaten genuen gaztetan, asko izerditutakoan". Horra beraz hitz gutxirekin definizio ederra eskuratu, Xantik eta emazteak. Hiztegiira joan naiz, halere, informazio zabalagoaren bila. Merezki izan du. Uste baino azalpen zehatzagoa dator bertan, hitz horren gainean. Berez *likea* da, ez *like*. Beste hitzetan esanik, Goierrialde honetan oso maiz ikusten den $a+a = ea$ ageri da hor ere: *likea + a = likea*.

Bizkaian da hitza, itxuraz, inon baino ezagunago. Zerainen ere etxe-etxekoa izana da ordea. Deigarria da, oraingoan ere, Bizkai aldeko fenomeno Aizkorpe honetan hain etxekotua egotea. Hitz hori ez da, ordea, Bizkaikoa bakarrik. Gipuzkoan askotxo erabiltzen da (ez Beterrin, baina bai handik hona). Nafarroan eta Lapurdin ere ezaguna da. Azkenik, beste puntara joanik, Erronkarin ere erabili izan da hitza, bertako *uskara* zaharra XX. mendean hil aurretik. Zer esan nahi zuen *likea* horrek, han-hemen? Hitz horren hiru adiera nagusi datoz hiztegian. Honako hiru hauek:

1. **Liga (para pájaros)**. Bizkai-koak dira honelako adibide gehienak: "txoriak arrapateko gauza inkakorri *likea* esaten iako" (La sustanciaviscosa y pegajosa). Hangoa da beste hau ere: "*Likiagaz* juan dira txoritara, gaur eskolarik ez danetik". Azkuerena da Batxi Guzur-eko adibide hau: "Itsu itsurik etorten dire: *likea-puske* bat adarrean ipini ta gero kolkora kaiolatxori talarratxori ta txirrikilek". Gipuzkoan, Beterrin alde horretan, *likea* esan ordez *bixka* esaten dugu.

Hala esaten genuen behintzat, ume garaian. Orain ez dakit hitzak bizirik segitzen duen. Gerra aurreko (eta ondoko) zenbait idazlek maz erabili izan du *likea* hitza, halako abstrakzio-maila bateko ideiak azaltzeko. Horrelakoa da, adibidez, Txomin Agirrek Garoan dakarren hau: "Bera [zan] Zabaletako gaztearen *likea* ta lakio". Baita Orixeren hau ere: "Eriolika artetik atera nauzu". Txillardegi zenak honela zioen bere Leturiaren Egunkari Ezkutuan: "Senarra utzi ta zer egin dezake bere aldetik zijoan emakume gajoak? Audela-ta *likea* bikaña duk diruaren falta".

2. **Viscosidad**, toda materia pegajosa en general. Honela zioen Mogelek: "Begira, neure seme maitiari, *likia* baño itxaaskorragua da lujurija. Txomin Agorrek, berriz, honela: "Bei uztartuei dariten lurruniklik ondo lerdakatu zeramakik". Eman dezagun beste zenbait adibide. Elexpuruk Bergaran jasotako bi hauek ez dira okerrenak: "Iztarrak depilatzekua alako gauza *likea* bat da"; bestetik "Bietzak *likea-likea* inda gelditu jate lauakin". Leku askotan erabili izan da *likea* hitza, "viscosidad" esateko: Bizkaian, Gipuzkoa osoan, Lapurdin eta Nafarroan.

3. **Sudor pegajoso**. "Decimos *izerdi likea* a aquel sudor pegajoso que talvez tenemos, especialmente estando enfermos". "Izerdi-*likatan* nago", estoy cubierto de sudor pegajoso, edota "Izerdi-*likitan*", en sudor pegajoso. Adiera horretakoa da hau ere: "*Lika-likea* dauzkat beatzak" (tengo muy pegajosos los dedos).

Horra, labur-labur, hitzaren adierak eta erabilgune nagusiak aipatu.

Betikoa falta zaigu ordea: zergatik ari da *likea* edo *like* hori Zerainen galtzen? Zergatik dute 60 urte ingurutik gorako zeraindarrek hain ezagun, eta 40 urte ingurutik beherakoek ez? Zer gertatu da tartean, zeraindar batzuen eta besteen artean halako etena, halako haustura gertatzeko? Aldakuntza teknologikoa? Zaharberitze soziokulturala? Baserriaren gainbehera ekonomikoa? Denetik pixka bat, akaso. Arazo biologikoa ez da izango, nolana ere: lehen bezain izerdikoi gara orain, desodoranteak gorabehera. Itsasteko pegamentua behar-beharrazkoa dugu bestalde, salako txarro eder hori lurrera erortzen zaigunean. Kontzeptua orain ere beharrezkoa baldin badugu zergatik ari zaigu, hortaz, hitza galtzen? Partez, ohitura soziokulturalengatik: txoriak *likarekin* harrapatzea ez dago, lehen bezain ondo ikusia. Baserri-giroko jokabide "normal" bat anormala bihurtuz doa, eta anormaltasun soziokultural horren testigu isila dugu *likaren* galera. Baserri-giro hartan normala zen *likea*-puska bat adarrean ipini eta gero, txoria harrapatutakoan, kolkora eramatea. Ohitura hura ez da orain, Zeraingo plaza inguruan behintzat, hain onargarri: zibilizatu edo hiritartu egin gara, hitzaren adiera on eta txar guztiekin. Eta jakina: txoriak harrapatu behar ez baditugu, zertarako behar dugu *likea*? Besterako hor daukagu pegamentua, orratz eta guzti. Funtzio bertsua bete arren "bestegauzabat" baita *imedio*, tapoia-ekin eta tapoirik gabe.

Mikel Zalbide

Lagundu XaguArterako hitzak proposatuz!

Galtzen ari diren hitzen atal honetarako hitzen bat badaukazula uste baduzu, gorde ondo buruan, jarri paperean eta proposatu! Horretarako, Mandion, Ostaturun eta soziedadean kutxa txiki batzuk jarri ditugu. Sartu bertan zuen ekarpenak eta saiaturako gara luze baino lehen atal honetan argitaratzen. Eskerrik asko eta animatu!



Xagu-txoko



Babesetik

MAIATZA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		1	0	5,5	1	7	0
C° altuena		20	23	23	19	21	19
C° baxuena		6	8	13	9	11	7
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	2	14,5	0	0	0	1	0
C° altuena	23	24	29	31	32	18	19
C° baxuena	6	15	17	19	18	15	12
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	0	8	0	0	3	20	19
C° altuena	22	20	21	25	15	14	13
C° baxuena	7	7	8	12	12	11	10
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	25	9	0	0	0	0	0
C° altuena	12	15	22	25	31	24	26
C° baxuena	9	10	9	12	15	14	10
	28	29	30	31			
Euria (l/m)	0	0	0	0	GUZTIRA: 116 l.		
C° altuena	25	29	26	25	ALTUENA: 32 °		
C° baxuena	12	12	13	15	BAXUENA: 6 °		

Maiatza udaberriko

Maiatzean udaberri-udaberriko giroa egin du: orain bustia, orain beroa, orain lehorra, orain hotza! Gorabeheratsu ibili da eguraldia. Lehen hamabostaldia epela eta beroa, eta nahiko lehorra joan zen. San Isidroen ondoren, ordea, euria erruz bota zuen, eta ereizioak atzeratu. Hala ere, atertu zuen hil amaierarako eta baratzean aritzeko giro bikainak egin zituen. Iruditzen eskolako haurrak eta haiek landutako baratzea.



Mendietako ingeniariak bisitan



Maiatzaren amaieran, mendietako ingeniari talde batek Zeraingo proiektua eza-gutzeko eta herriko basoak ezagutzeko bisita egin zuen.

Herriko bake epailea berria

Datozen lau urteetarako Zeraingo bake epailea Xabier Lazkanoiturburu izango da. Karguan Javier Arnaez ordezkaturko du. Ordezko bake epailea, berriz, Miren Makatzaga izango da.

Urki Balerdik hartu du Ostatu jatetxea

Zabalegi Azpiko Urki Balerdi herritarrek hartu du Ostatu jatetxea. Udalak egindako deialdira aurkeztu zen hautagai bakarra izan zen, eta bera izango da aurrerantzean Ostaturako arduradun. Ekainaren 22az geroztik, atek irekita ditu Ostaturak. Zorte on Urki!

Petrikilloren gurutzea Zeraina etorri da

Zeraingo petrikilloaren omenez Udanan zegoen gurutzea Zeraina ekarri da eta Udanan ordezkoa jarri. Zerainean, gurutzearen inaugurazioa ekainaren 6an, iluntzeko 7etan egingo da bolatoki ondoan.

Jubilatuaren eskurtsioa San Fermin egunean

San Fermin egunean, uztailaren 7an, Zeraingo jubilatuaren urteroko irteera egingo da. Aurten, Añanako gatz arana bisitatzea joango dira. Jubilatuak ez izan arren norbaitek joan nahi badu, udaletxera gertura dadila.

Sutondo ekimenaren aurkezpena

Bakarrik bizi diren adinekoei sukaldeko lanak errazteko eta elikadura ona bermatzeko sortutako Sutondo ekimena aurkeztuko da Zerainean. Uztailaren 4an, arratsaldeko 6:30etan izango da aurkezpena kultur etxean.